

UDAL PLANEAMENDUKO AHOLKU BATZORDEAREN IRAUNKORRAREN BILERAREN AKTA

Eguna: 2016ko ekainaren 21a

Tokia: Donostiako Udaleko Gobernu Batzarraren Aretoa.

Bileran izan direnak.

- Batzordeburua: Enrique Ramos Vispo, Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri eta Proiektuetako zinegotzi eskuordeduna, Alkatearen izenean.
- Kideak:
 - Alfonso Gurpegui Rufz, PSE-EE udal taldearen izenean.
 - Ricardo Burutaran Ferré, EH BILDU udal taldearen izenean.
 - Amaia Almirall López de Luzurriaga, EH BILDU udal taldearen izenean.
 - Miren Albistur Garmendia, PP udal taldearen izenean.
 - Iñaki Gurrutxaga Armendariz, EAJ/PNV udal taldearen izenean.
 - Leopoldo Sánchez Taberner, Auzo elkarteen izenean.
 - Ray Mendiburu Abad, Auzo elkarteen izenean.
 - Marko Sierra Ron, Ingurumen alorreko Elkarteen izenean (Haritzalde Naturzaleen Elkartea).
 - Edurne Aperribay Ulacia, Emakumeak eta Hiria Foroaren izenean.
 - Juantxo Agirre Mauleón, Aranzadi Natur Zientzien Elkarteen izenean.
 - Izaskun Aseginolaza Braga, Euskal Herriko Arkitekto Hirigileen Elkarteen izenean.
 - Juan Carlos Cuevas Argandoña, Hirigintzako zuzendaria.
 - Rafael Farias Blanc, Donostiako Etxegintza enpresa erakunde publikoaren kudeatzailea.

Gonbidatuta etorritakoak.

- Felix Soto, Uliako Auzo Elkarteen izenean.

Idazkaria: Carlos Azcoaga Mendizabal, Udaleko Idazkari Nagusiak eskuordea emanda.



Arratsaldeko bostak direnean (17:00) hasi da Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen iraunkorraren bilera, egindako deialdiari erantzunez, gai zerrenda hau duela:

1. Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen Iraunkorrak 2015eko abenduaren 14an izandako bileraren akta onartzea.

Marko Sierrak esan du Aktak ez dituela jasotzen AU05 Ategorrieta eta AU UN 02 Ulia alorretako HAPOa Aldatzeko espedienteari buruz planteatu zituen gauzetako asko. Bilera hartan Marko Sierrak ingeniari agronomo moduan parte hartu zuen eta aipatu zituen: hango garrantzia naturaren ikuspegitik (bertako faunak interesa du Europan, florak interes autonomikoa du, eta haien kontserbaziorako neurriak behar dira), balio sozialak (hara 1000 donostiarretik gora hurbiltzen dira eta hango inguruak eta deposituak bisitatzeko eskaera gora doa), balio historiko eta kulturala (udal haztegi eta depositu historikoak), eta balioa lorezaintza eta antolamenduaren ikuspegitik. Lorategi kuasi historikoa du, eta bere azalerak eta morfologiak aisialdirako garrantzia handia duen tokia bihurtzen dute. Gainera, Europan ematen diren gomendioei jarraitzen die, tamaina eta irisgarritasunari dagokienez, hirietako plangintza berdea lortzeko. Bestalde, Marko Sierrak adierazi du Donostiako Udaleko Hirigintzako aktak bere izena asmatzen duela (Marco eta Marcos), eta horrek profesionaltasun eta interes falta adierazten duela. Hori guztia kontuan izanda, Markok eskatu du abenduak 14ko akta ez onartzea.

11/2015

Ricardo Burutaranek ere esan du aktak ez duela jasotzen gai honi buruz esandako guztia; esaterako, espediente hau hobeto ezagutzeko beste Batzorde bat konbokatze beharra.

Era berean, adierazi du espedientea aho batez onartzeko, aldez aurretik bozkatzea eskatzen duela.

Amaia Almirallek esan du aktek bileretan gertatutakoa bere horretan islatu behar dutela.

Izaskun Aseguinolazak adierazi du Enrique Ramosek esan bezala, aktak ideia orokorra jasotzen duela, baina agerian jarritako hainbat gai eta ñabardura interesgarri ahazten dituela. Beharrezkoak

diren ñabardurak aktan eransteke modua zehazteko eskatu du, oso interesgarria delakoan. Idazkariak esan du batzordera deia egiten duenari, Isabel Velazquezi bidaltzeko.

Akta bozkatu egin dute, eta ondoko emaitzarekin onartu da:

- Aldeko botoak: Enrique Ramos; Alfonso Gurpegui; Miren Albistur; Leopoldo Sánchez; Juan Carlos Cuevas eta Rafael Farias.
- Kontrako botoak: Ricardo Burutaran; Amaia Almirall; Ray Mendiburu; Marko Sierra.
- Abstentzioak: Izaskun Aseguinolaza eta Juantxo Agirre.

2. AU ZU.02 Aldatxeta eta ZU.03 Katanbideri buruzko Hiria Antolatzeko Plan Orokorren Aldaketa onartzea.

Hirigintzako Zuzendari Cuevas jaunak Real Sociedad de Fútbol SADk bultzatutako espedientea modu zabalean azaldu du.

Esan du Aldatxetako eremuak, Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean bizitegi moduan sailkatuta dagoenak, eraikitzeke 3.936 m² gutxiago izango dituela (46 etxebizitza inguru). Katanbideko eremuak, berriz, kirol instalazio moduan sailkatuta dagoenak, zabalera handiagoa izango du, bi futbol zelai berri eraikitzeke.

Marko Sierrak hitza hartu du, kenduko den eta landatuko den zuhaiztiaren artean benetako konpentsaziorik ez dagoela esateko.

Ray Mendiburuk dio ingurunearen konpentsazioaren gai hau Udal Ordenantza bidez araututa egon behar lukeela.

Honelako kasuetan, zuhaizti, fauna eta floraren inguruan alde aurretiko azterketa bat egin behar litzatekeela dio, eta hortik abiatuta, neurri orekatzaileak ezarri.



Amaia Almirall ere horren alde agertu da.

Izaskun Aseginolazak adierazi du aldaketaren edukia egoki ikusten duela, baina antolaketa topografiarekin hobeto egokitu litekeela, ingurunearekin hobeto moldatu eta lur gutxiago mugitu behar izateko, alegia, inpaktu txikiagoa izateko. Gainera, esaten da landaketa berriaren neurri orekatzailea barregarria dela, aukeratutako tokia guztiz desegokia izanik, ez baitu ezer ekartzen, ingurunearen ebaluazioaren betetze hutsa baizik. Landatuko den zuhaitzi berria beste nonbait egin liteke, horren bidez futbol zelai berrien inpaktua txikitzeko.

Marko Sierrak esan du, ingeniari agronomo moduan, Izaskun Aseginolazak egindako komentarioak babesten dituela, proiektuaren hobekuntza bat suposatzen dutelako, eta Haritzalde ez duela babestuko HAPOaren aldaketa hau.

Ray Mendiburuk eta Ricardo Burutaranek uste dute Izaskun Aseginolazak mahaigaineratutako gaia hobeto aztertu behar dela, ezarpenerako bestelako aukerarik ote dagoen erabakitzeko.

Udal Planeamenduko Aholku Batzordeak, ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 109. artikulua arabera, adostu du "AU ZU.02 Aldatxeta eta ZU.03 Katanbideri alorrei dagokien Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Aldaketa puntuala" espedienteaz informatzea, Udalak ondoko proposamena aztertu dezan: Teknikoki bi futbol zelai berriak lurzoruaren orografiari hobeto egokitzeko irtenbidea aztertzea, horrela inpaktu txikiagoa lortzeko.

3. AU.05 Ategorrieta eta AU NU.02 Ulia alorrei buruzko Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Aldaketa onartzea.

Enrique Ramosek esan du Aholku Batzordearen aurreko bileran hartutako konpromisoa betez, gai hau berriz ere gai ordenan sartu duela, Batzordekideen jarrera beste behin entzuteko.

Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, ekainaren 9an, espediente honen aldeko txostena egin duela dio.

Donostiako Etxegintzako Teknikariek egindako diseinu proposamena aurkeztu du. Diseinua zuzkidura bizitokirako doazen eraikuntzetarako da, eta lurzoruaren zati txikiena okupatzeko irizpidearekin egina dago.

Felix Sotok azaldu du bere garaian ur deposituak eraistetik salbatu ziren moduan, orain ere momentua dela iritziz aldatu eta espazio honen balio historiko kulturala kontuan hartzeko, 150 urte baino gehiago baitira Euskal Herriko Ondare Kulturala dela.

Plan Orokorraren Aldaketa suposatzen duen ingurune honetan, gune berdeak ere behar direla, eta egin diren eraikuntzei esker, aprobetxamendu urbanistikoaren lagapenaren %15a metalikoan bildu dela, eta gero ez dela gune berdetan inbertitu. Hori dela eta, gabezia dago.

Juantxo Agirrek, ordezkatzan duen erakundearen izenean, dio atsekabetuta daudela udal taldeei ez zitzaielako aurretiaz aholkua eman lurzoruaren potentzial eta balioen inguruan, ondare kultural eta naturalaren ikuspegitik. Donostiako udal barruti mailan lursail bikaina da eta bertan uraren kultura eta parke historiko baten balioak uztartzen dira. Lursail honen garrantzia batasun moduan ulertzean datza. Horrela, Donostiako identitate eta xarma gehien duten parkeetako bat bilakatuko da. Azken urtetako utzikeriak eta bere egungo egoerak ez lukete etorkizunerako ikuspegi estrategikoa eragotzi behar. Lursailaren bokazioa paisaia eta ondare balio horiek sustatzera bideratu behar litzateke, eta horiei garrantzia emateko proiektua idatzi. Gaur egun egoera konplikatu eta guztiz ez desiragarria dela uste du, non gizarte eragile eta ordezkari politikoak aurrez aurre jarri diren, hiritar guztiak bildu behar lituzkeen toki baten aitzakiaz. Apartamentu edota etxebizitza familiabakarrak eraikitzea ekintza konponezina litzateke, eta datozen korporazioak eta etorkizuneko generazioak baldintzatuko lituzke. Edozein kasutan, aldaketa puntual hau behin betiko onartu ondoren, Udalak aukera luke, beste hainbat aldiz gertatu bezala, partida ekonomikorik eman ez, eta exekutatu gabe uzteko. Honela, gaia luzatuko litzateke adostasun eredugarria lortu arte, oraingo konfrontazio mailatik urrunduz. Ekintza honen atzeraezintasunak aukera historiko bat galtzea ekarriko luke”.

Marko Sierrak esan du proiektu hau aurrera ateratzen bada, tokiaren fisionomia guztiz aldatuko duela, eta ez dela gehiago parke bat izango.

Gune berde paregabea da, balio handiko landare eta babestutako espezieak dituelarik.



Gune hau lehenago ez nuen kulturalki baloratzen, baina orain ezberdin ikusten dut, toki paregabea bezala, eta horrela mantentzeko aparteko aukera dugu. Hori horrela, helburu hori lortzeko, talde politiko guztiei eskua luzatzen dizuet.

Lursaila bere osotasunean **parke kultural** moduan hartzea eskatu du, hiriko zenbait tokitatik turismoaren kongestioa arindu baitezake. Horren adibide bezala, Mendillorriko praktika ona aipatu du, Barcina lehendakari ohiarekin. Bertan, ur deposituen ondoan paseo naturalistikoa sortu da, gida batekin, hango arbola eta txori espezie ezberdinak ikusteko. Ale bat ekarri du bilerara.

Edurne Aperribaik adierazi du ez duela ikusten premiazko beharrik zuzkidura bizitoki hauek eraikitzeko, segur aski beste toki batzuetan eraikitzeko aukera egon daitekeenean.

Enrique Ramosek dio gazte donostiarren %80 inguru gurasoen etxean bizi dela, proposamen honetan aurkeztzen diren bezalako alojamenduak ez daudelako.

Gainera, bizitoki hauek ez egitekotan, Hirigintza Planeamenduak aurreikusten duena luxuzko etxebizitzak eraikitzea dela azaldu du.

Ray Mendiburuk Edurne Aperribaik mahaigaineratu duen gai bera atera du, alegia, zergatik ez diren zuzkidura bizitoki hauek egiten edo egin izan hiriko beste tokiren batean.

Juan Carlos Cuevasek bilakaera historikoaren ikuspegitik lursail honi buruzko azalpena eman du. Hasiera batean Uraren Museoa aurkeztu zen, eta etxebizitzak teknologia bioklimatikoaren ikuspegitik aitzindariak izatea. Hura geratu egin zen eta Hirigintzari enkargua egin zitzaion zuzkidura bizitokiak eraikitzeko, jakinda Udalarentzat zuten kostua. Orain, esku hartzetako batzuetan, planteamendu honetan atzera botatzea eskatzen ari dira.

Ray Mendiburuk esan du hiritarrak gai honen garrantziaz ohartu direla eta Udalak egindako planteamenduan aldaketak egitea exijitu du.

Uste du aurkeztutako proposamena astakeria bat dela, eta beste aukera batzuk aztertu behar direla.


Amaia Almirallek Juan Carlos Cuevasi erantzuten dio eboluzioa natura errespetatzea ere badela, eta hiritarrei entzutea.

Lehen ez genituen datu eta ezagupenak ditugu orain, eta hasierako planteamendua berraztertzea ekarri dute. Horrez gain, hiriko beste zenbait aldetan gazteentzako zuzkidura bizitoki horiek eraikitze guneak daude. Agian, zuzentzea jakintsuen gauza da.

Felix Sotok esan du duela 10 urte, bizilagunen bitartekotzari esker, ur deposituak salbatzea lortu zutela, nahiz eta 30 etxebizitza eraikitze tokia mantendu zen.


AU.01.4 Okendo Alde bezalako azpieroak ere badaude, eta han zuzkidura bizitokiak eraikitzea aurreikusten da.

Hemen Donostiako Etxegintzak jarduteko aukera dugu.



Leopoldo Sánchezek hitza hartu du eta esan du lehen ez zuela lursaila ezagutzen, eta orain ezagutzen duela, nahiko iritzi pobrea suposatzen diola. Aurrera joateak ingurumena errespetatzea suposatzen duela, baina gazteen beharrak ere ase behar direla. Ez luke jakingo esaten aurkeztutako aukeretatik zein den onena baina behar guztiak kontuan hartu behar direla. Hori dela eta, ezin du baten ez bestearen alde egin. Parke botaniko bat egiteko hirian beste tokirik ez ote dagoen ere galdetu du.

Marko Sierrak eskatu du Aholku Batzordeak hurrengo bileran Aranzadik prestatutako txostena azter dezan.



Enrique Ramosek esan du eskabide hori ez dagoela onartzerik; izapidetuta dagoelako espedientea eta alderdi hori ere kontuan izan delako.

Felix Sotok aipatu du inkesta baten arabera azken bi urtetan gazteentzako 40 apartamendu hutsik egon direla.

Rafael Fariasek erantzun du eta esan du Donostiako Etxegintzaren eskutan dagoen informazioaren arabera, datu horiek ez direla benetakoak.

Izaskun Aseguinolazak adierazi du behin-behinean onartutako dokumentuak ez duela zehaztasunik jasotzen (lerrokatzea, okupazio portzentaje edo garaiera), aurreikusitako eraikuntza tokiarekiko ez oso intrusibo eta egokia izateko. Enrique Ramosek onartu du horrela dela, eta horretan lanean ari direla esan du.

4. Eskaerak eta galderak.

Ray Mendiburuk nahigabea adierazi du pasa den maiatzaren 21ean Eusko Jaurlaritzak deitu eta Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideei buruz egindako bileraren berri ez duelako izan.

Ricardo Burutaranek bi gai aipatu ditu. Batetik, "puntuala" izan arren Udala tramitatzen ari den IN.09 Garbera Alorrerako HAPOaren aldaketak hiri osoaren mugikortasunean, ingurumenean eta komertzioan eragina izan dezake. Horregatik, egoki eta beharrezkoa ikusten du "aurrerapen" figura, aukera guztiak aztertu daitezzen, zero aukera barne, eta Aholku Batzorde honek aukera guzti horiek aztertzeke aukera izan dezan.

Bestetik, Udalak duela gutxi eskatutako Ondare Urbanistiko Eraikia Babesteko Plan Bereziaren berrikuspen txostena Aholku Batzorde honek landu dezan.

Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiriko Proiektuetako zinegotzi eskuordeduna ados dago Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezia berriz begiratzeko dokumentua aholku batzorde honek aztertzeke proposamenarekin.

Garberako espedienteak, berriz, legeak agintzen dituen izapideei jarraituko die.

Eta, beste aztergairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 18:45ean.

BATZORDEBURUA,

Izpta.: Enrique Ramos Vispo



IDAZKARIA,

Izpta.: Carlos Azcoaga Mendizabal

